




Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Cookie Politika Onartu

Nork: Nerea Lizarralde -Urr 24, 2017

# SAGAR FESTA OSPATU DUTE KATXOLAN

Asteburuan ehunka lagun elkartu dira Katxola baserrian, Lantxabe auzo elkarteak antolatutako sagar festan: bizilagunak, familiak, sagardoan adituak, Gipuzkoako Bolo Federazioko presidentea, Kutxa Ekoguneko kideak, Aieteko kirol elkartekoak, Euskara batzordekoak, PSE-EEko Enrique Ramos eta Miguel Angel Diez zinegotziak...

Sagardoa modu tradizionalean egiteko prozesuan parte hartu dute. Irailean sagarrak bildu zituzten Urnietako bi baserritan. Patxolua, urtebi, goiko etxe, udare, txalaka, ale handi, ziulio baserri eta gezamina motako sagarrak erabili dituzte. Eta larunbatean Katxolako baserriko tolarean sagarra prentsatu zuten. Mila kilo sagar prentsatu dituzte eta bi kupela bete dituzte 600 litrorekin.

Otsailean dastatuko dute Katxolan egindako sagardoa. Orain prentsatutako sagarren muztioa kupeletan gorde dute Aieteko bizilagunek.










AIETE AUZOAK




## AZKENAK



LITERAKTUM JAIALDIAK MAHAI-INGURU INTERESGARRI BAT IZANGO DU



ENEKO GOIA: "DONOSTIA AURRERA DOAN HIRIA DA"




KATALUNIAKO HEDABIDE PUBLIKOEKIN ELKARTASUNA



KATALUNIAKO KATE PUBLIKOEI BABESA ADIERAZIKO DIETE HEDABIDEETAKO LANGILEEK OSTEGUNEAN

**NEREA LIZARRALDE**

Ez dago iruzkinik

## EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website

BIDALI IRUZKINA



Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastian
Euskara Zerbitzua
EUSKARAREN HIRIA DONOSTIA

DONOSTIAKO HEDABIDEAK S.L • WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.